



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresara bezeroak erakartzeko, publizitatea egingo dugu, sare sozialetan (jende gehienak erabiltzen dituztenak eta gure produktua erakutsi dezakeguna: Instagram, Facebook, YouTube eta Twitter) eta irratan (Gaztea eta Euskadi Irratia). Publizitatea egiteko, baita ere, kalean pankartak ipiniko ditugu kaleko jendeak ere enpresaren inguruan jakin dezan.

Bezeroak gurekin harremanetan ipintzeko hainbat bide desberdin ditugu, hau da, web-gunea, sare sozialak (Instagram, Facebook, YouTube eta Twitter), E-maila, mugikor zenbakia edo Lazkaoko gure lan egiteko pisura etorrita. Nahiz eta gurekin komunikatzeko bide desberdinak eduki, enpresako kideak pertsonalki arduratzen gara bezeroei erantzuten. Honekin, bezeroei segurtasun sentimendua eta konpromezua erakusten saiatzen gara, modu horretan gure bezeroak mantentzeko.

Bezeroen iritziak errespetatuko ditugu lan egiterako orduan eta beraien beharretara ahalik eta egokien egokitzen saiatzen gara. Honekin, bezeroak mantentzea lortzen dugu harreman profesional egoki bat sortuz eta baita ere, bezero berriak lortuko ditugu, egindako publizitatearen eta bezeroen iritzi positiboen ondorioz.

Guretzat betebeharr oso garrantzitsua da bezeroak gurekin gustura sentiaraztea eta guran konfiantza izatea.